

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Administrazioiko 26.689 funtzionario eta administrazio publikoko langilek maiatzaren 18an hauteskunde sindikalak egingo dituzte

18 sindikatu eta koalizioetako 4.205 hautagairen artean 288 ordezkari hautatuko dira 16 hauteskunde alorretan

Miércoles, 27 de abril de 2011

Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioan lan egiten duten 26.689 funtzionario eta administrazio publikoko langileri datorren maiatzaren 18an egingo diren hauteskunde sindikaletan parte hartzeko deia egin zaie. 2007ko hauteskundeekin alderatuta, hautesle kopurua % 13 haziko da alor bakoitza koordinatzen duten Hauteskunde Mahaiek onetsitako eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne departamentuak emandako eroldaren arabera.



NAPIn 2007an jarri ziren hauteskunde mahaietako bat

Zehazki, hauteskundeetan 25.887 estatutupeko funtzionarioek eta administrazioak kontratatutako langilek eta lan kontratudun 802 langilek (kontratu finkoa zein aldi baterakoa dutenek) eman ahal izango dute botoa. Administrazio nagusia (Euskarabidea, Evena, Nafarroako Gazteriaren Institutua eta Nafarroako Berdintasunerako Institutua barne), Nafarroako Gobernuako erakunde autonomoak eta Foru Erkidegoko administrazio publikoko langileen alor espezifikoak osatzen dituzten 16 hauteskunde alorretara atxikitako langileak dira.

Nafarroako sektore publikoko langileek 288 ordezkari sindikal aukeratuko dituzte 4.205 hautagairen artean. Hautagai horiek 18 erakunde sindikalek aurkeztutako 82 hautagaitza osatzen dituzte.

Hauteskundeetan lehiatuko diren sindikatuen siglak hauek dira: Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Elkarte (AFAPNA), ANPE irakasleen sindikatua, Foruzaingoaren Erakunde Profesionala (APF), Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Elkarte (APS), Comisiones Obreras sindikatua (CCOO), Lanaren Konfederazio Nagusia-Solidari hauteskunde koalizioa (CGT-Solidari), Zentral Sindikal Independentea eta irakaskuntzako funtzionarioena (CSI-F), LAB, SATSE erizaintzako sindikatua, Nafarroako Suhiltzaileen Sindikatua (SBN), Nafarroako Medikuen Sindikatua (SMN), Administrazio Langileen Sindikatua (SPA), Justizia Administrazioiko Langileen Sindikatua (STAJ), STEE-EILAS irakaskuntzako sindikatua, UGT,

Erizaintzako Langileen Sindikatua (USAE) eta Unión Sindical Obrera (USO). Hauteskundeak lantokietan jarriko diren 90 mahaitan egingo dira.

Hauteskunde alorrak

Administrazioaren alorrei dagokienez, Nafarroako Osasun Zerbitzua datozen hauteskundeetan hautesle, hautagai eta parte hartuko duten sindikatu gehien dituen erakundea da. 10.484 funtzionario eta administrazio publikoko 449 langileri egin diete botoa emateko deia; horiek, 11 indar sindikaletako 1.710 hautagaien artean 72 ordezkari aukeratuko dituzte.

Hautesle kopuru handiena duen bigarren taldea unibertsitatekoak ez diren irakasleena da. 8.461 funtzionario dira eta 51 ordezkari izango dituzte, ordezkari horiek bederatzi sindikatuk aurkeztutako 1.156 hautagaien artean aukeratuko dira.

Botoa eman dezakeen langile kopuru handiena duena Administrazio nagusia da (beste hauteskunde alor batzuetara atxikita ez dauden Gobernuako zerbitzuetako langileek osatzen dute); 3.752 hautesle dituzte, eta horietatik 3.444 funtzionarioak eta 308 lan-legepeko kontratauak dira. Bederatzi indar sindikaletako 465 hautagaien artean 44 ordezkari hautatuko dituzte. Hautesle gehien izango duen laugarren prozesua Foruzaingoko langileei loturikoa da. 1.083 langilek bozkatu ahal izango dute 23 ordezkari sindikal hautatzeko sei sindikatutako 238 hautagaien artean.

Nafarroako Mendekotasun Agentziak eta Nafarroako Larrialdi Agentziak 677 eta 556 hautesle dituzte eta 20 eta 18 ordezkari hautatu behar dituzte, hurrenez hurren, eta badakite jadanik nortzuk diren funtzionarioen alorreko hautagaiak (177 Nafarroako Mendekotasun Agentziaren kasuan eta 131 Nafarroako Larrialdi Agentziarenean). Aldiz, organismo bi horietako lan kontratudun langileek (45 langile dira guztira; hain gutxi izanik, langileen ordezkariak aukeratzeko dituzte, eta ez langileen batzordeak eta enpresa komiteak, besteek egiten duten modura) maiatzaren 9ra arte itxaron beharko dute, hauteskunde mahaiak eratu arte, eta maiatzaren 16a hautagaitzak aurkezteko epe muga izango da.

Hauteskunde prozesua honako alor hauetako langileak aukeratuz amaituko da: Justizia Administrazioa (553 hauteslek 17 ordezkari hautatuko dituzte), Nafarroako Zerga Ogasuna (304 hautesle eta 13 ordezkari), Nafarroako Enplegu Zerbitzua (185 hautesle eta, 9 ordezkari), Nafarroako Osasun Zerbitzuko Institutua (68 hautesle, zazpi ordezkari, hiru talde sindikaletako 21 hautagai), Nafarroako Kirolaren Institutua (66 hautesle eta zazpi ordezkari), Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (51 hautesle eta zazpi ordezkari).

2007ko hauteskundeak

2007ko maiatzaren 16an egin ziren Foru Administrazioaren hauteskundeetan 3.927 hautagai aurkeztu ziren guztira 80 hautagaitzatan, horiek 19 sindikatu eta profesionalen talderen ordezkariak ziren.

Orduan, 23.517 hautesletatik 13.785 pertsonak bozkatu zuten, hau da, parte hartzea % 58,63 izan zen. CCOO sindikatuak 49 ordezkari lortu zituen eta lehen indar sindikala izan zen; haren atzetik izan ziren LAB (46), ELA (36), UGT (35) eta AFAPNA (24).

Hauek ere ordezkariak lortu zituzten: SMN (16), SATSE (12), SPA (10), Foruzaingoaren Sindikatua (8), STEE-EILAS (8), USAE (8), APS (7), USO (6), CSI-CSIF (5), ANPE (4), APF (3) eta ESK sindikatuak, Independenteen hautagaitzak eta STAJek ordezkari bana.